

Orra berba gichitan etsayen omena,
Iñok emon leyonik da au andiena,
Jaso daigun guk bere erritar aiñ ona,
Dalako gaur onaren alde ebillena,
Antonio Okendo gerrari zaillena.

Gloria gaur Okendo gerrari andia,
Donostiaren ondra, umant (1) eregia,
Gloria Kantauritar izar ain argia,
Kristiñau zintzo eta fededun bizia,
Munduak ta zeruak bezue saria.

FELIPE ARRESE Y BEITIA.

JUSTIZ DERITZAION BASERRIAREN JATORRIA.

COMPOSICION SEÑALADA CON MENCION HONORÍFICA EN LOS JUEGOS FOLRALES EUSKAROS DE SAN SEBASTIAN.

Euskaraz mintzo diran bazter guzietan
Eskolatutzen dira gure mendietan
Aoz ao alkarrí beren billeratan
Kontatutzen dituzten kondaira ederretan.

Guraso zarrak dira gaurik luzenetan
Pipa artuaz soseguz zizelu zarretan.
Auzoak bildurikan beren sukaldetan
Poztutzen dituztenak jostaldi oetan.

Ez da gertaerarik emen iragorik
Neguaren buruan kontatzen ez danik;
Orregatikan ez da aundi ta chikirik
Bere erri maiteari naiko ez dionik.

Ona otsedago (2) bat antziña aditua,
Aurra banintzan ere ez daukat aztua;
Beste asko buruan ondo ez artua
Sekula etzait juango gerostik damua.

Mundu guxiak daki dala Ondarrabia
Azaña asko gertatu diraden uria,
Bere eskutarma dauka galant ipiñia
Onratzen duelarik Ama Probintzia.

(1) Héroe.—(2) Tradicion.

Itz bitan esango det emen gerta zana,
Ez uste ipuia dala kontako dedana,
Baizikan egiazki iragoa dana;
Auzo erri guziak dio sinispena.

Jaizkibel-go basoak aritzez josiak
Zeuden denbora aetan ziran egokiak;
Eizez bete beteak sasi-ichi guziak
Leku oberik ezin auta eitzariak.

Naparroko Errege zan Sancho Abarka,
Mendiz mendi ibiltzen zan sarri jiraka,
Oian ugarietan zakurra zangaka
Zenbat basurde gogor ill zuen lanzaka.

Guadalupeko ermita dagon sartaldera
Errekacho bat doa *mur mur* goitik bera;
Pozkidaz zegoela Errege begira
Neskach bat zitzakion agertu aurrera.

Apelles-en pintzela ez litzake aski
Aren edertasuna antzeztekoko noski;
Burutik oñetara egiña aiñ egoki
Politagorik izan dan iñork ez daki.

Egun sentian zuten esnatzen choriatik
Banatuaz egoki beren otseztia,
Arboletan millaka kantuz egaztiak
Diosala egiten zioten guziak.

Egun onak emanda, errezoak egin,
Lazter eche-egaztiak zituen berekin;
Gozaria prestatu talo-esneakin,
Iturriira juäten zan pegarrarekin.

Errege izan arren chit atrebitua,
Gelditu zan noskiro oso arritua,
Kordegabe bezela eta mututua
Beregian ziolarik ¿ote da aingerua?

Bereala korrika zijoan igesi
Atzerriko zalduna zuelako ikusi;
Itsutua amorioz, Errege zan asi,
«Ez nazula iñondik bakarrikan utzi.»

Atseman zuenean ume bikañ ura,
Lore ederragorikan ez baita mundura,
«Guztiz ederra» zera, zion jau! ichura!
Nijoan maite nauen galde egitera.

Gaitzik gabeko aurruk, oso lotsaturik,
Errege amurustua ala ikusirik,
Esan zion: «Ez bedi nekatu alperrik,
Ezergatikan ez det onra gladuko nik.»

—Etsaitezela naasi, aur eder liraña,
Jaun ta jabe naizela da gauza jakiña;
Goitalchatuko zaitut dezakedan diña
Ezpadirazu ukatzen neri atsegíña.

—¡Izan beza kupida!, zion aur garbiak
Begi eder urdiñak negarrez bustiak;
Nai baditu irabazi zeruko gloriak,
Alde bat utzi bitza zale-galgarriak....

.....
Oso naskidatua juan zan echera
Amacho maiteari kontu ematera.
—¡Nere aur doakabea, lotsaz bete gera!
¡Zorigaiztoan ziñan echetik atera!

Damutasunik asko bere biotzean
Zuelarik bizitu zan bakardadean:
Ama besterik etzan bere aldamenean
Seme bat argitara eman zuenean.

Gaztigatu zioten Sancho Erregeri
Begirun aundirekin jaiotzaren berri;
Begiratzeko aren etorkizunari
Agindu zuen ariñ esateko amari.....

«Bere echetik ikusten zituen lur danak
Beti izan zitezela ama-semearenak».
Gaurdaño bazter aek goza dituztenak
Dudagaberik dira andik datoztenak.

Baserri kondairar ark gerostik izena
«Justiz» du, neskach ari Erregek emana:
Ona pasartecho bat esaten diguna
Munduan denbora artan iragotzen zana.

Lendikan dakizkite auzotar guziak
Baserri-eche polit onen iturriak,
Bilorruskian¹ ere dauzka ezarriak
Pelipe Errege zala, Urbinak jarriak.

Ango Echejaun prestu biotz berakoak
Dituzte gaur izkribu aiñ baliosoak;
Nekazari etorki errealekoak
Gorde bitza luzaro gure Jaungoikoak.

EUSKALDUN BAT.

El pais vasco juzgado por los extraños

El P. Jacinto en sus celebradas Conferencias de Nuestra Señora de Paris, rindió por dos veces tributo de afecto al pais bascongado:

«Devolvamos—dijo—al hogar doméstico el culto con que le honran los pueblos virtuosos, los pueblos libres. Uno hay en España que ha pasado como el pueblo hebreo, á través de los siglos, adicto á sus primitivas costumbres. El pueblo Bascongado, tan libre bajo el techo de la casa paterna, como respetuoso ante la autoridad, ha escrito en sus Fueros esta sabia y envidiable ley: *Ninguna fuerza pública puede acercarse al domicilio de un bizcaino a mas de nueve pasos de distancia.*»

En otra Conferencia añadió el afanado orador de la Catedral de Paris:

«Yo amo los hechos, sobre todo cuando reunen la poesía, la moral y la utilidad. Permitidme invocar de nuevo el ejemplo de ese pequeño pueblo bascongado, en cuyas fronteras pasé la niñez.

«Gracias á su sistema de poblacion, compuesta de caserías aisladas, *gracias á sus libertades seculares*, MAS ÁMPLIAS Y MAS PRÁCTICAS QUE NUESTRAS LIBERTADES MODERNAS; gracias, sobre todo, á sus tradiciones morales y religiosas, los bascongados han realizado el ideal de la vida rural en un pais montuoso, poco favorable para el cultivo, y bajo el cielo de Bizcaya, el mas triste de España, ofrecen el raro espectáculo de un pueblo que desdeña la riqueza é ignora la pobreza. Entre ellos la seguridad es tan grande, que los ganados y los frutos pueden permanecer en los campos, sin temor al hurto, porque, como se ha dicho muy bien, están guardados por el séptimo mandamiento. »

(1) En pergamo.